

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion peoi espezialisten hamar plaza hautatzeko prozesuaren onarri espezifikoa onartzea, Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztaliaren 3ko erabakiaren bidez onartua (ALHAO, 89. Zk., 2020ko abuztuaren 10ekoa) eta hautaketa-prozesuaren eta 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren deialdia, Tokiko Gobernu Batzordearen 2022ko martxoaren 18ko erabakiaren bidez onartua (ALHAO, 39. zk., 2022ko apirilaren 1ekoa)

2022ko ekainaren 10ean Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez, honako hau ebatzi da:

LEHENENGOA. 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion peoi espezialistaren hamar plazak hautatzeko prozesuaren oinarri espezifikoa hauek onartzea, Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 3ko erabakiaren bidez onartua (ALHAO, 89. zk., 2020ko abuztuaren 10ekoa) eta hautaketa-prozesuaren deialdia, Eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko martxoaren 18an onartutako 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari (ALHAO, 39. zk., 2022ko apirilaren 1ekoa):

PEOI ESPEZIALISTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

Lehenengoa. Iragarritako plazak

2020ko eta 2022ko lan-eskaintza publikoen barruan, sarrera libreko sistemaren bidezko lehiaketa-oposiziorako deialdia egiten da, peoi espezialisten hamar (10) plaza hornitzeko. Hautatze-prozesuaren osagarri gisa, praktikaldi bat ere egin beharko dute izangaiek. Plazak administrazio bereziko eskalakoak dira, zerbitzu berezien azpieskalakoak, eta C taldeko ordainsariak dagozkie.

Txanda librea: 10 plaza, derrigorrezko 1. hizkuntza-eskakizunarekin.

Karrerako funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartzen den unean hutsik dauden plazen arabera zehaztuko da zerbitzuak zer destinotan emango diren.

Iragarritako plaza kopurua handitu ahalko da plazaren bat hutsik geratzen bada; plaza horiek alkate-udalburuaren ebazpen baten bidez sartu ahalko dira deialdi honetan. Hala dagokionean, gainditu duten pertsonen zerrenda argitaratu aurretik egin beharko da plazen kopuru handitze hori.

Bigarrena. Betekizunak

Oinarri orokorretan zehaztutako betekizunez gain, DBH-ko titulua, eskola-graduata, Lanbide Heziketa 1 edo titulu baliokidea eduki beharko da, edo hori jaulkitzeko eskubideak ordainduak eduki beharko dira. Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da. Gainera, B motako gidabaimena ere eduki beharko dute izangaiek.

Hirugarrena. Azterketa egiteko eskubideak

Hautaprobetan izangai gisa izena eman nahi duten pertsonen azterketa-eskubidearen tasak ordaindu beharko dituzte, Audio Udalean indarrean dauden ordenantza fiskalean jasotako baldintzekin bat.

Nolanahi ere, azterketa-eskubideen ordainketa eskabideak aurkezteko epearen barruan egin beharko da.

Laugarrena. Instantziak

Hautatze-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonen udal webgunean (<https://www.laudio.eus/eu>) eskuragarri dagoen eskabide elektronikoa bete eta aurkeztu beharko dute, edo Audioko udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzura (HAZ-ra) joan, bertan bete eta aurkezteko. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehazten diren lekuetan ere aurkeztu ahalko dira eskabideak.

Eskabidea aurkezteko eta dagokion tasa ordaintzeko epea 20 lanegunekoa izango da, deialdi honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Halaber, hautatze-prozesuan parte hartzeak esan nahi du onartu egiten dela hautatze prozesuaren edozein unetan Audio Udalaren Lan Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak egokitzen jotzen dituen azterketa edota kontrolak egin ahalko dituela, izangaiek eduki behar duten gaitasun funtzionala dutela egiaztatze aldera.

Oinarri orokorretan aurreikusi diren ondoreetarako, eta oinarri hauetan jasotako hautatze prozesuetatik eratorritako lan-poltsak eratzeari dagokionez, izangaiek eskabidean adierazi beharko dute haien datuak Administrazio Publikoaren beste erakundeei lagatzea onartzen duten ala ez. Zehazki, datu hauek laga lekizkieke beste administrazioei: izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, harremanetarako telefono-zenbakia, helbide elektronikoa eta prestakuntza maila. Datuen lagapenaren xede bakar eta eskusiboa izango da administrazio publikoek lan eskaintzak egin ahal izatea, legeetan aurreikusitako baldintzetan. Horiek horrela, lagatzearen aurkako esanbidezko adierazpenik egon ezean, euren datuak lagatzea onartzen dutela ulertuko da.

Bosgarrena. Hautatze-prozesua

Lehiaketa-oposizio bidezko sarrera librearen bidez hautatuko dira izangaia. Horiek horrela, oposizio-fasearen ostean, lehiaketa-fasea (merituen balorazioa) egingo da, eta, osatzeko, praktikaldi bat ere gaingitu beharko dute izangaia.

5.1. Oposizio fasea.

Hiru (3) ariketa izango ditu oposizio-faseak.

5.1.1. Lehenengo ariketa.

Ariketa hau nahitaezkoa da, eta gaingitzen ez duten izangaia baztertu egingo dira.

Test moduko 90 galderari erantzun beharko zaie, erantsitako gaitegiaren gaineko lau erantzun desberdin izanda. Ariketan, puntu bat emango da erantzun zuzen bakoitzeko eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute penalizaziorik izango.

Horiek horrela, 90 puntukoa izango da lor daitekeen puntuazio zuzenik handiena (beraz, 30 puntu lortu beharko dira gutxienez proba gaingitzeko), hau da, azken puntuazioko 30 puntu.

5.1.2. Bigarren ariketa.

Ariketa hau nahitaezkoa da, eta gaingitzen ez duten izangaia baztertu egingo dira.

Kasu teoriko edota praktikoa bat edo batzuen inguruko galdera batzuei erantzun beharko zaie. Galderak kasuan kasuko plazaren eginkizunen nagusien edukiekin edota erantsitako gaitegiko gaiekin erlazionatuak egongo dira.

Ariketan, puntu bat emango da erantzun zuzen bakoitzeko eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute penalizaziorik izango.

Froga horri 0 eta 30 puntu bitarteko puntuazioa emango zaio, eta, gaingitzeko puntuazio minimoa 10 puntukoa izango da.

5.1.3. Hirugarren ariketa.

Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da euskarazko 1. hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duten plazetan.

Euskarako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba izango da, eta epaimahaiak zehaztuko du proba egiteko modua; horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak aplikatuko dira, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Edonola ere, euskararen ezagutza egiaztatzeko ariketa azkena izango da, eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hautatze-prozesuetan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko zehaztu duen egutegira moldatuko da.

Ez dute ariketa hau egin beharko HAAE-k jaulkitako 1. hizkuntza-eskakizunaren egiaztageria (edo maila altuagokoa) edo Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera euskarazko B-1 maila egiaztatzeko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluan, azaroaren 9koa 297/2010 Legearen 3. artikuluan eta hurrengoetan nahiz apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan zerrendatutako beste tituluren bat, betiere, ariketa egiteko data baino lehenago egiaztatzen bada Laudioko udaletxean dagokion ziurtagiria aurkeztuta; hori egin ezean, ez da izangairik salbuetsiko ariketatik.

Hala ere, ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori aurkeztea baldin eta hizkuntza eskakizuna Euskara Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatua badago; ondore horietarako, pertsona parte hartzaileak beren beregi baimenduko dio Laudio Udalari aipatutako Erregistroan beharrezkoa egiaztatze-lanak egitea.

Hizkuntza-eskakizunak apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuestekoan xedatutakoan oinarrituta egiaztatu nahi dituztenek, dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute.

5.1.4. Puntuazioa.

Nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira lehenengo eta bigarren ariketak, eta, gehienez ere, 60 puntu lortu ahalko dira.

Hirugarren ariketan, hau da, euskara proban, gai edo ez-gai kalifikazioak baino ez dira emango, derrigorrezko hizkuntza eskakizunaren arabera.

Hortaz, 60 puntu lortu ahalko dira gehienez ere oposizio-fasean.

5.2. Lehiaketa fasea.

Oposizio fasea amaitutakoan hasiko da lehiaketa fasea, eta lehenengoa gainditu duten izangaiekin. Lehiaketa fasean, izangaiek alegatutako eta egiaztatutako merituen baloratuko dira. Merituen baremo honen arabera emango dira puntuak.

Oinarri hauetan adierazitakoarekin bat egingo da merituen balorazioa, eta, beraz, ez da bestelako meriturik kontuan hartuko.

5.2.1 Esperientzia profesionala.

Estatuko Administrazio Orokorrean, autonomia erkidegoetako administrazioetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 3.1 artikuluan zehaztutako toki-administrazioetako erakundeetan karrerako, bitarteko edo lan-legepeko funtzionario gisa, II. eranskinean jasotzen titulazio talde berean eta bertan jaso direnekiko baliokide diren eginkizunak betetzen lortutako esperientzia baino ez da kontuan hartuko (Epaimahaiak zehaztuko du baliokidetasuna), edozein izanda ere harreman juridikoa, zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuak, bekak eta praktikaldiak alde batera utzita. Administrazio Publikoak jaulkitako "Emandako zerbitzuen ziurtagiria" aurkeztuta egiaztatu beharko da esperientzia hori. Eskakizunak aurkezteko epearen azken eguna baino lehenago emandako zerbitzuak baino ez dira kontuan hartuko.

Organo eskumendunak jaulkitako ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira emandako zerbitzuak, zer lanpostutan eta zenbat denboraz eman diren esanbidez adierazita. Ez dira kontuan hartuko lan esperientziarekin erlazionatutako merituak baldin eta ez badituzte kontzeptu hauek esanbidez adierazten:

- Betetako lanpostuaren izendapena eta kategoria profesionala.
- Kontratazio aldien hasiera- eta amaiera- datak.
- Lanpostuaren eginkizun nagusiak.

Epaimahaiak zehaztuko duen moduan eta forman alegatu beharko dira Laudio Udalean emandako zerbitzuak, baina pertsona interesdunek ez dituzte egiaztatu beharko. Ofizioz zenbatuko dira zerbitzu horiek.

Gehienez ere, 15 puntu emango dira; toki administrazioan eta haren organismoetan emandako egun bakoitzeko 0,015 puntu, eta gainerako administrazioetan emandako egun bakoitzeko, 0,0075 puntu.

Nolanahi ere, lanaldi partzialarekin edo lanaldi murriztuarekin emandako denboraldiak lanaldi osokotzat zenbatuko dira.

5.2.2. Hautatze-prozesuan parte hartzeko beharrezkoa den hizkuntza-eskakizuna baino altuagoa edukitzea.

2 puntu emango dira euskarazko 2. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria edukitzeagatik (edo altuagoa), baita euskara ezagutzeko B-2 mailako (edo maila altuagoko) titulu edo ziurtagiri ofizialak edukitzeagatik.

Ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori aurkeztea baldin eta hizkuntza eskakizuna Euskara Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatua badago; ondore horietarako, pertsona parte hartzaileak beren beregi baimenduko dio Laudio Udalari aipatutako Erregistroan beharrezko egiaztatze-lanak egitea.

5.2.3. Hautatze-prozesuan parte hartzeko behar den titulazio akademikoa baino maila altuagoa den titulazioa edukitzea.

Jarraian ageri diren puntuazioak emango dira eskatzen dena baino maila altuagoko titulazioa edukitzeagatik, betiere, titulazio bakarra kontuan hartuta, mailarik altuenekoa:

— 3 puntu emango dira ezagutza-eremu hauetako goi mailako heziketa-zikloa edukitzeagatik: igeltserotza, iturgintza, margolaria, elektrizitatea edo lorezaintza.

— 2 puntu emango dira ezagutza-eremu hauetako erdi mailako heziketa-zikloa edukitzeagatik: igeltserotza, iturgintza, margolaria, elektrizitatea edo lorezaintza.

Ez dira kontuan hartuko egiaztatzen ez diren merituak. Merituak egiaztatzeko, kasuan kasuko titulazioaren jatorrizko agiriak edo titulua jaulkitzeko eskubideen jatorrizko ordainagiria aurkeztu beharko da, edo agiri horien kopia konpultsatuak.

5.2.4. Prestakuntza-ikastaroak.

Jarraian ageri diren puntuazioak emango dira zerrendatutako prestakuntza- eta hibeakuntza ikastaroengatik, betiere, ikastarook 2012ko abenduaren 31ren ondoren amaitu badira:

- Dumper: puntu 1.
- Orga jasotzailea: puntu 1.
- Lanak altueran: puntu 1.

— Igeltserotza, iturgintza, margolaritza, soldatze, elektrizitate, zurgintza edo lorezaintzari buruzko ikastaroak: egiaztatutako ikastaro-ordu bakoitzeko 0,05 puntu emango da, gehienez ere, 3 eman arte.

Edonola ere, alegatzen diren tituluen ziurtagirietan adierazia egon beharko da ikastaroaren izena, data, non eman zen eta ordu kopurua, eta meritua alegatzeko epea hasi baino lehenago amaitua egon beharko du.

Ikastaroan parte hartu izanaren ziurtagirian ez bada ikastaroak iraun dituen orduen kopurua jasotzen, ezin izango da balioztatu, behintzat, izangaiak ez badu ikastaroa antolatu duen erakundearen ziurtagiria aurkezten ikastaroaren iraupena egiaztatzeko.

Ez dira kontuan hartuko titulazio akademiko ofizial bat eskuratzeko ikasketa-plan baten zati diren ikastaroak.

5.2.5. C1 edo C gidabaimenak.

C1 edo C gidabaimenak edukitzeagatik, puntu 1 emango da horietako bakoitzeko.

Egiaztapena egiteko, aipatutako baimenak eskuratu izana adierazten duen gidabaimenaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da meritua aurkezteko epearen barruan.

5.2.6. Puntuazioa.

Lehiaketa-fasean lortu daitekeen puntuazio maximoa 27 puntukoa izango da.

Seigarrena. Prozesuaren emaitza

Hautatze-prozesuaren azken kalifikazioa ariketetan lortutako puntuazio guztiak batuta kalkulatu da (betiere, gaingitu egin badira). Berdinketa gertatzen bada, oinarri orokorretan xedatutakoa aplikatu da.

Hautatze-prozesua amaitutakoan, epaimahaiak udaletxeko iragarkien taulan eta udal-web-gunean argitaratuko ditu ariketak gaingitu dituzten pertsonen behin-behineko kalifikazioak, puntuazio handiena lortu duenetik txikiena lortu duenera, eta esanbidez adierazita hautatu diren pertsonak; pertsona hautatuen kopuruak ezingo du gaingitu deitutako plazen kopurua.

Interesdunek 10 laneguneko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak formulatzeko, behin-behineko emaitzen zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Erreklamazioak aurkezten badira, horiek ebatzi ostean argitaratuko du Epaimahaiak hautatze-prozesua gaingitu duten izangaiei behin betiko zerrenda.

Epaimahaiak esleitu gabe utzi ahal izango ditu deialdian sartutako plazak, baldin eta irizten badio izangaiek ez dutela lanpostuan aritzeko beharrezko maila eman probetan.

Zazpigarrena. Dokumentazioa aurkeztea

Hautatutako pertsonen 15 laneguneko epea izango dute, prozesuaren emaitzak argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Laudioko udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ-n) aurkezteko oinarri orokorretan zehaztutako dokumentuak.

Zortzigarrena. Praktikaldia eta prestakuntza

Hautatze-prozesuaren beste fase bat izango da, zeinetan praktikaldi bat egin beharko duten lehiaketa-oposizio fasean puntuaziorik onena izan duten izangaiek; izangai horien kopuruak ezingo du gaingitu deialdian eskainitako plazen kopurua. Izangai bakoitzari atxikitzen zaion plazan egingo dute izangai guztiek aipatutako praktikaldia, gehienez ere, sei hilabetekoa. Behar bezala iragarriko dira praktikaldiaren nondik norakoak.

Ebaluazioa praktikaldi osoan prozedura jarraitua aplikatuz egingo da, eta 15 egun natural baino gehiago irauten duten absentsiak gertatze direnean baino ez dira etengo, dela absentsia bakarrean, dela praktikaldi osoan 15 eguneko absentsia gainditzen denean. Kasu horretan, ukitutako pertsonak zehaztutako praktikaldi osoa bete beharko du.

Izendapena jasotzen duten izangaiek praktiketako funtzionario gisa jasoko dute, udal langileen ordainsariak arautzen dituen akordioan xedatutako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute, eta langile funtzionarioei aplikagarri zaien Gizarte Segurantzako araubidean alta emango zaie.

Egoera horrek bere horretan jarraituko du izendapenaren ebazpenean adierazten den egunetik plazaren jabetza hartzeko ebazpenean adierazten den egunera arte, edo izangaia praktikalditik deskalifikatua geratzen den egunera arte.

Praktikaldian, ebaluazio jarraitua egingo zaie deialdian jasotako plazaren berezko eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta trebeziak, oinarri orokorretan xedatutako baldintzetan.

Izangaia "gai" edo "ez gai" kalifikazioa jasoko dute, eta "gai" kalifikazioa jaso beharko dute hautatze-prozesuaren fase hau gainditzeko.

Izangaiek gaitasun- edota aprobeitxamendu-baldintzak lortzen ez badituzte, praktikaldiaren edozein unetan baliogabetu ahalko zaie izendapena, Zerbitzuaren pertsona arduradunak hautatze prozesuaren Epaimahaiari igorritako proposamenaren bidez. Proposamena aztertu ostean, Epaimahaiak zehaztuko du izendapena baliogabetzea egokia den ala ez, eta erabakitakoaren arabera proposamena egingo dio alkate-udalburuari.

Bederatzigarrena. Izendapena eta plazaren jabetza hartzea

Laudio Udaleko karrerako funtzionarioen izendapenak oinarri orokorretan xedatutakoarekin bat egingo dira.

Hamargarrena. Aldi baterako enplegu-poltsa

Behin hautatze-prozesuaren emaitza izanda, lan-poltsa bat eratuko da oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten izangaiekin. Lan-poltsa hori aldi baterako langileria-beharrei erantzuteko erabiliko da, eta Audio Udalaren lan-poltsari buruzko araudian xedatutakoari jarraikiz kudeatuko dira, hurrengo paragrafoan xedatutakoa gorabehera.

Aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraikiz eratutako lan-poltsak agortzen direnean, nahi-taezko ariketa baztertzailer gehien gainditu dituzten pertsonen osatutako zerrendek izango dute lehentasuna beste lan poltsekiko, gainditutako ariketetan lortutako guztirako puntuazioaren arabera hurrenkeran.

Berdinketarik gertatzen bada, oposizio-faseko bigarren ariketan puntuaziorik handiena lortu dutenen alde egingo da.

Hiru urteko indarraldia izango dute lan-poltsa berriek, onesten direnetik aurrera zenbatuta, eta urte urte luzatu ahalko da, denbora-mugarik gabe, alkate-udalburuak kontrakorik ebatzi ezean.

Hamaikagarrena. Aurkaratzeko bideak

Oinarri hauek nahieran errekurritu daitezke alkate-udalburuari berraztertze-errekurtsoa aurkeztuta, hilabeteko epean, eta, halaber, zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzi-bidean, bi hilabeteko epean, biak ala biak ALHAOn argitaratzen diren egunetik aurrera zenbatuta eta, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 112, 123 eta 124 artikuluetan nahiz uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoaren 46. artikuluan xedatutakoarekin bat.

I. ERANSKINA. GAITEGIA

1. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Hatsarre orokorrak. (1etik 9ra bitarteko artikulua). Oinarrizko eskubide eta askatasun publikoak. Eskubideak eta betebeharrak (10etik 52ra).

2. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Estatuaren lurralde-antolaketa. Hatsarre orokorrak (137tik 139ra bitarteko artikulua). Tokiko administrazioak (140tik 142ra bitarteko artikulua).

3. gaia. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna. Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa (1etik 3rako artikulua, 7. artikulua eta 17tik 20ra bitartekoak).

4. gaia. Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuak Prebenitzekoa. (1etik 4ra bitarteko artikulua eta 14tik 19ra bitartekoak).

5. gaia. 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa: II. titulua. Udalerria (11tik 27ra bitarteko artikulua).

6. gaia. Audio: Udalerriari buruzko ezagutza orokorrak. Mapa eta kale-izendegia. Ekipamendu eta zuzkidura publikoen kokapena Audio udalerrian.

7. gaia. Kale-garbiketako eta hondakin-bilketako udal-ordenantza (1etik 6ra bitarteko artikulua, eta 16tik 21era bitartekoak).

8. gaia. Igeltserotza-lanak: peoien lanak. Eskuko tresna eta erremintak. Aglomerazioak. Agregakinak, adreiluak: definizioa eta motak. Aglomeratuak.

9. gaia. Elektrizitate-lanak: peoien lanak. Eskuko tresna eta erremintak.

10. gaia. Lorezaintza-lanak: peoien lanak. Eskuko tresna eta erremintak. Landareen oinarrizko atalak. Landareen oinarrizko prozesuak. Txerto, belauntze eta aldaxka mota desberdinei buruzko oinarrizko ezagutzak.

11. gaia. Garbitze-lanak: peoien lanak. Garbitze lanetarako eskuzko tresna, produktu eta erreminta.

12. gaia. Margotze-lanak: peoien lanak. Eskuzko tresna eta erremintak.

13. gaia. Zurgintza-lanak: peoien lanak. Eskuzko tresna eta erremintak.

14. gaia. Iturgintza-lanak: peoien lanak. Eskuzko tresna eta erremintak.

15. gaia. Hiri-altzariak: motak eta konpontze-lan ohikoenak.

Emandako arau- eta lege-erreferentziak informazio gisa baino ez dira eman, eta, beraz, hautatze-prozesu honetako izangaien erantzukizuna izango da erreferentzia horietan aipatutako legeak eta arauak aldiro egokitu eta eguneratzea, hala dagokionean. Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean deialdia argitaratzen denean indarrean dauden arauak eta legeak izango dira ezagutu beharrekoak.

II. ERANSKINA PEOI ESPEZIALISTEN EGINKIZUNAK

ERANTZUKIZUN ETA EGINKIZUN NAGUSIAK (hemen adieraziko dira lanpostuan dagoen pertsonak erantzukizun esparru bakoitzerako zehaztu diren adierazleetara iristeko bete behar dituen zeregin nagusiak; ez da zerrenda murriztaile edo mugatzailea, eta, beraz, dokumentuan jaso gabeko beste batzuk gehitu litezke).

Peoi guztiek berezko dituzten eginkizunak

— Obrak, esku-hartzeak eta lorezaintza-lanak egikaritzea Obretako buruaren edota ofizial baten ikuskaritza izanda eta haien aginduei jarraikiz.

Zuhaitzak landatzeko zuloak egitea, soropila moztea eta ureztatzea.

Lorategiak garbitzea eta hostoak biltzea.

Zuhaitzak eta zuhaixkak moztea eta adarrak jasotzea.

Hesolak ipintzea zuhaitzik gazteenei.

Lurra mugitu eta prestatzea loreak eta zuhaixkak landatzeko.

Ongarritzea.

Bere espezialitate-eremuko beste edozein lan tekniko egitea nagusi hierarkikoek hala eskatzen diotenean.

— Egin beharreko obra, esku-hartze eta lanen osagarri diren bestelako zereginak betetzea, nagusi hierarkikoek eskatzen diotenean.

Biltegiko materialak, eskailerak, tresneria, etab. garraiatzea.

Elementuak muntatzeko laguntza ematea.

Zamalanak egitea material, zaku eta hesiekin.

Materialak prestatu eta garraiatzea.

Zangak zulatu, induskatu, eraitsi eta egikaritzea.

Makineria, altzariak, erremintak, etab. garraiatzea.

Aldamioak jaso eta batzea.

Obra-hondakinak jasotzea.

Beste edozein espezialitate-eremuko beste edozein lan tekniko egitea nagusi hierarkikoek hala eskatzen diotenean.

— Oro har, ikuskizun eta ekitaldi publikoetarako elementuak garraiatu, muntatu eta desmuntatzea.

— Obra eta Zerbitzuen Brigadaren materialak, tresnak eta ekipamenduak erabiltzea eta erabiltzeko baldintza egokietan edukitzea.

Lana egiteko beharrezkoa den tresna, makineria eta ekipamendu oro erabili eta maneiatzea.

Bere kargura duen materiala kontrolatzea, kontserbatzea eta prebentziozko mantentze-lanak egitea.

— Obra eta Zerbitzuen Brigadako ibilgailuak eta makineria guztia maneiatu eta mantentzea (kamionetak, furgonetak, dumperra, etab.).

— Nagusi hierarkikoek esleitzen dioten eta beharrezkoa den beste edozein baso-lan egitea.

— Udal-eraikin eta instalazioak irekitzea eta ixtea, beharrezkoa denean.

Giltzak gorde eta zaintzea.

Alarmak konektatu eta deskonektatzea.

Instalazioak ixtean, argiak, alarmak eta gainerako elementuak behar bezala itzalita geratzen direla ziurtatzea.

— NBE-ak nahiz uniformeak erabili eta mantentzea.

— Eguneko lan-partea egitea, baita, oro har, haren nagusi hierarkikoek eskatzen dioten beste edozein dokumentu ere.

— Instalazioen mantentze-lanei, obren egikaritzeari, esku-hartzei, hilerriari eta abarrei dagokienez gerta litezkeen larrialdiak kudeatzea, beharrezko baliabideak erabilia.

— Udalaren eta bere beharren hobekuntza sustatzea eta horretan parte hartzea, hobetzeko balio dezakeen edozein ekintza edota aldaketa proposatuta.

— Udaleko gainerako langileekin lankidetzan aritzea zereginak metatzen direnean, langileak falta direnean edota langileak gaixotzen direnean.

— Arloetatik esleitu dakioken beste edozein eginkizun betetzea, betiere, bere lanpostuarekin eta kategoriarekin lotua badago.

Mantentze-lanetako peoien eginkizunak.

— Obrak, esku-hartzeak eta mantentze-lanak egikaritzea Obretako buruaren edota ofizial baten ikuskaritza izanda eta haien aginduei jarraikiz.

Brigadaren lanetan laguntzea, hala matxurak hautematen, nola horiek konpontzen.

Esleitzen zaizkion igeltserotza-, margotze-, elektrizitate- eta iturgintza-lanak egitea, besteak beste.

Zangak irekitzea, hodiak azalera- eta balbulak desmuntatzea, etab.

Jarioak hautematen laguntzea.

Bide publikoan zirkulazio-seinaleen diskoak ipintzea.

Luminariak, erreluktantziak, hariteria, gailuen konexioak, etab. ordeztzea.

Bere espezialitate-eremuko beste edozein lan tekniko egitea nagusi hierarkikoek hala eskatzen diotenean.

Hilerriko peoien eginkizunak.

— Udal-hilerrian obrak, esku-hartzeak, mantentze- nahiz lorezaintza-lanak, hobiratzeak, desobiratzeak, eta instalazioen garbiketa-lanak egitea.

— Herritarrei laguntzea hilerriaren funtzionamenduari buruzko informazioa emanda.

— Udal-hilerria zabaldu eta ixtea.

BIGARRENA. ALHAOn argitaratzea 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion peoi espezialistaren hamar plazak hautatzeko prozesuaren oinarri espezifiko hauek, Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 3ko erabakiaren bidez onartua (ALHAO, 89. zk., 2020ko abuztuaren 10ekoa) eta hautaketa-prozesuaren eta 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren deialdia, Tokiko Gobernu Batzordearen 2022ko martxoaren 18ko erabakiaren bidez onartua (ALHAO, 39. zk., 2022ko apirilaren 1ekoa).

HIRUGARRENA. 2020ko Lan Eskaintza Publikoari dagozkion peoi espezialistaren hamar plazak hautatzeko prozesuaren oinarri espezifiko hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, laburbilduta, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 3an onartua, 2020ko abuztuaren 10eko ALHAOn argitaratua (89. zk.) eta hautaketa-prozesuaren deialdia eta 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintza, Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko martxoaren 18ko erabakiaren bidez onartua (ALHAO, 39. zk., 2022ko apirilaren 1ekoa), oinarri espezifikoak argitaratzen diren ALHAO adierazita.

LAUGARRENA. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion peoi espezialistaren hamar plazak hautatzeko prozesuaren oinarri espezifiko hauek, Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 3ko erabakiaren bidez onartua (ALHAO, 89. zk., 2020ko abuztuaren 10ekoa) eta hautaketa-prozesuaren deialdia eta 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintza, Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko martxoaren 18ko erabakiaren bidez onartua (ALHAO, 39. zk., 2022ko apirilaren 1ekoa), oinarri espezifikoak argitaratzen diren ALHAO adierazita.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Aukerako berraztertze-errekurtsorik jartzen ez bada, bide judiziala irekiko da, eta, beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Gasteizko Eduki Administratiboko Epaitegian, txandaka, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laudio, 2022ko ekainaren 15a

Alkate-udalburua

ANDER ANIBARRO MAESTRE